



## TREBAKUNTZA 2016-11: HELBIDEAK

Udal idazki askotan helbideak oker idatzita ikusi ditugu. Helbideak behar bezala idazten hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

## OHIKO AKATSAK

1. \*Francisco Macía **Kalea** 3, 11.a
2. \*San Inazio etorbidea **2**
3. \*Donibane enparantza, **z/g**
4. \*Etxebeste plaza, **7-3 B**
5. \*Estafeta kalea **8tik** abiatzen da autobusa.

## ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Izen propioak maiuskulaz jarri behar dira eta arruntak minuskulaz

Ad. Francisco Macía **kalea** 3, 11.a  
San Juan **plaza** 5

2. IVAPen gomendioen arabera, toki izenaren eta zenbakiaren artean ez da komarik jarri behar; bai, ordea, Euskaltzaindiaren arabera.

Ad. San Inazio etorbidea **2** (IVAPen arabera)  
San Inazio etorbidea, **2** (Euskaltzaindiaren arabera)

3. Laburdurak honela idatzi behar dira:

- Zenbaki gabe (z.g./zk.g.)

Ad. Donibane enparantza **z.g.** (IVAPen arabera)

Ad. Donibane enparantza **zk.g.** (Euskaltzaindiaren arabera)

- Ezkerra (ezk.)/eskuma (esk.).

Ad. Txinparta enparantza 8, 2. **ezk.**

Zumalakarregi etorbidea 13, 2. **esk.**

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

4. Helbidearen zenbakiaren eta solairuaren zenbakiaren artean ez da gidoia erabili behar, koma baizik.

Ad. Etxebeste plaza 7, 3 B

**OHARRA:** “-3. B” zero azpitik hiruarren solairua da.

5.- Ez da laburdurarik erabili behar helbideak esaldi barruan txertatzean:

Ad. Estafeta **kaleko 8tik** abiatzen da autobusa.

Etxebeste **plazako 7ra** iritsi zen taxia.

Sua dago Askatasunaren **etorbidean, 12an.** / Sua dago **Askatasunaren etorbideko 12an.**

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99